
Prentsa oharra

lazko deialdian 272 erakunde aurkeztu ziren, eta haien proiektuen artean 147 proiektu hautatu ziren

Kutxak beste deialdi bat iragarri du 2020ko gizarte- eta kultura-proiektuak laguntzeko Gipuzkoan



Donostia, 2019ko azaroaren 4a. Kutxak gaur aurkeztu du laguntzak eskatzeko bostgarren deialdi irekia, Gipuzkoako elkarte eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek 2020an egin nahi dituzten gizarte- eta kultura-proiektuetarako. Iaz aurkeztutako 272 proiektutatik 147 aukeratu ziren. Alorren arabera banaketa honako hau izan zen:

Alorrak	Proiektuak
Aisialdia	10
Euskara	9
Genero berdintasuna	6
Hezkuntza	14
Ingurumena	9
Kultura	45
Solidaritatea	23
Arteak	4
Osasuna	24
Zientzia	3
Guztira	147

Bihar, azaroak 5, irekiko da eskaerak aurkezteko epea, 2019ko abenduaren 9ko 14:00ak arte. Eskaerak elektronikoki izapidetuko dira atari pribatu baten bitartez, Kutxa Fundazioaren webgunetik (www.kutxa.eus) eskuragarri egongo dena.

Atari berri honek hainbat abantaila eskaintzen dizkie erakundeei, eta aukera ematen du aurkeztu beharreko informazioa eta dokumentazioa modu zentralizatuan kudeatzeko, deialdietan berrerabil dezaten, deialdien irekiera errazteko eta aurkeztutako eskaeren eta abian dauden proiektuen egoera ikusteko. Era berean, Kutxa Fundazioak erakundeen eskura jarriko du komunikaziorako bide bat, zalantzak eta erantzunak trukatzeko, baita, eskaera eta proiektu/hitzarmenen sarrera historikoa lortzeko.

Jasotzen dituen proiektuak ebaluatu ondoren, Kutxa Fundazioaren estrategiaren oinarri diren printzipioekin bat datozenak positiboki baloratuko ditu, eta emango dituen laguntzak martxoaren 2a baino lehen konpontzeko konpromisoa hartzen du fundazioak.

Aurreko edizioetan bezala, deialdi honen helburua honako arlo hauetan proiektuak garatzen eta bultzatzen dituzten erakunde eta erakundeei laguntzea da: prestakuntza, enplegua eta ikerketa; kultura, kirola eta aisia; euskara; autonomia pertsonala sustatzea eta zahartzeari, aniztasun funtzionalari eta gaixotasunari laguntzea, gizarte proiektuak; zientzia eta ingurumena; eta berdintasuna.

Erakunde eskatzaileek legez eraturik egon behar dute gutxienez urtebete lehenago, eta Gipuzkoan errotuta egon egiaztatzeko moduan.

Deialdi honen oinarrietan -kutxa.eus webgunean daude ikusgai- laguntzak eska ditzaketen proiektuen ezaugarriak ezartzen dira, proposamenak baloratzeko irizpideak, baita zein erakundek eta elkartek eska ditzaketen ere.

Kutxak ahalik eta proiekturik gehienentzako laguntzak eman nahi ditu. Orientazio gisa gehienez %25eko laguntzak aurreikusten ditu 50.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten proiektuentzat, eta gehienez %75ekoak 50.000 euro baino gutxiagokoentzat. Laguntzaren %75 ordaintzera konprometitzen da lankidetzahitzarmena sinatzerakoan eta gainerako %25 azken egikaritze-txostena aurkeztu ondoren.